

## Ánimoren hitzaldi-solasaldia garatzeko bidean dauden herrialdeetako osasun arloko kooperazioaz

Ánimok hitzaldi-solasaldi bat antolatu zuen joan den apirilaren 5ean, Mario Ubach sendagilearekin eta Isabel Rodríguezekin. Lehenak «Cooperación sanitaria en países en vías de desarrollo» hitzaldia eskaini zuen; eta Rodríguezek «Goundi, unas vacaciones diferentes, una aventura solidaria en Chad» liburuan jasota dauzkan esperientziak azaldu zituen. Liburuaren salmentatik ateratzen den diruarekin finantzatuko dute Goundiko Ospitaleko kontsultategien birmoldaketa. Ánimo elkarteak DUko kideek osatzen dute; egoera larrian dauden herrialdeetako unibertsitateekin ari da lankidetzan eta baliabide ekonomikorik ez duten ikasleentzat beka ematen ditu, ikasle horiek goi mailako ikasketak egin ahal izan ditzaten, euren jatorrizko herrialdean eta euren gizartearen garapenean laguntza eman dezaten. Unibertsitate horietako bat Txadeko Le Bon Samaritain Medikuntza Fakultatea da, Misión y Desarrollo Elkarteak Goundin laguntzen duen obretariko bat. Irabazi asmorik gabeko elkarte da, Txadeko hegoaldeko Goundi eskualdeko osasun egoera hobetzeko lan egiten duena. Elkarte horren buru dira Espainian Mario Ubach zirujaua eta Isabel Rodríguez erizaina, eta 20 urte baino gehiagoko esperientzia dute osasun arloko kooperazioan Afrikan.